

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktua ekoizterakoan, hainbat arlo ezberdin hartu beharko ditugu kontuan eta enpresaren sortzaileak hiru izango gara.

Lehenik eta behin, hirurok arduratuko gara giza-baliabideen areaz, hau da, denon artean antolatu eta kudeatuko ditugu enpresako langileak.

Maitanek, produktuaren diseinua, produktua hobetzeko eta aldatzeko informazioa bilatuko ditu. Diseinu pertsonalizatuak sortzeko gaitasuna du, imajinazioaren laguntzaz. Produktua egoki ekoizteko beste enpresa batzuekin kontaktuan jarriko da.

Olatz hornikuntza eta ekoizpen areaz arduratuko da. Gure produktua ekoizteko beharrezkoak diren materialak erosiko ditu, hornitzaileekin kontaktuan jarritz, eta produktuaren biltegiatzeaz ere arduratuko da. Horrez gain, ekoizpena ere kontrolatuko du, gure produktua ongi ekoizten dela eta segurtasunez bermatuz.

Nahikarik, finantzazio eta inbertsio-areak kontrolatuko du. Enpresak ongi funtzionatzeko beharrezko fondoak lortzeaz gain, inbertsio politikoa antolatuko du. Diru kontuak ongi kontrolatzen dituenek eta matematikan ere ona denez, berak eramango du fakturen, kostuen... arloa. Beraz, administrazio moduan ere lana egingo du.

Horrez gain, guk ez dugunez oso ongi ezagutzen merkatuaren mundua, beste marketing enpresa bat kontratatuko dugu ("Gureak"), gure produktua erosteko bezeroak bilatzeko, merkatura gerturatzeko, publizitaterako...

Bestalde, gure produktua itsuentzat, mugitzeko zailtasunak eta ikusmen urritasunari lotuta dagoenez, beharrezkoa ikusten dugu ONCE bezalako erakunde batekin harreman estua izatea, horrelako erakunde batentzako oso baliagarria ikusten baitugu gure produktua.